



XXXIV. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

EPAIMAHAIAREN AZKEN ERABAKIA

XXXIV. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko helburuarekin Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaia honako hauek osatu dute:

- Mahaiburua: Alexander Huitzi Alfonso, Andoaingo Udaleko Euskararako zinegotzi arduraduna.
- Mahaikideak: Itxaro Borda Xarriton, Aingeru Epaltza Ruiz de Alda, Miren Gabantxo Uriagereka, Pantxika Maitia, Ion Muñoa Errasti eta Jon Sarasua Maritxalar.
- Idazkaria: Arantza Aguado Perugorria, Andoaingo Udaleko euskara teknikaria.

Epaimahaiak ondorengo azken erabakia hartu du, gehiengoz.

AZKEN ERABAKIA

Epaimahaiak 2022ko urriaren 18an izendatu zituen zortzi finalistak, sari atal bakoitzeko launa, ondorengoak:

Kazetaritza Sarirako FINALISTAK:

Amaia Lekunberri Ansolak egindako <i>Anorexia, bestelako gerturapen bat. Zer dio jateari uzten dionak, jateari uzten dionean?</i> izeneko Larrun monografikoa
ETBren ASKE BIZI dokumentala
Miel Anjel Elustondok BERRIA egunkarian argitaratutako Tonban ehortzirik erreportaje sorta
ETBren BIBA ZUEK magazina

Komunikazio Sarirako FINALISTAK:

enpresabidea.eus webgunea
Aiaraldea komunikazio proiektua
Aiora Probatxoak Youtuben duen jarduera
aikotaldea.eus , Aiko Dantza taldeak sorturiko komunikazio proiektua

Maila bereko baina ezaugarri ezberdinetako bi sarik osatzen dute 2022ko Rikardo Arregi Kazetaritza Saria: *kazetaritza saria* eta *komunikazio saria*. Jada aipatutako zortzi finalisten artean, batzuen eta besteen merezimenduei buruz eta saridun izateko egokieraziritziak azaldu eta etzabaidan jardun ondoren, honakoak dira epaimahaiak gehiengoz saridun izendatu dituenak:

Kazetaritza saria 2022: Tonban ehortzirik, Miel Anjel Elustondok BERRIA egunkarian argitaratutako erreportaje sorta



Pandemian murgildurik egon garen bitartean askotan alboratu egin ditugu kazetaritzatik iristen zitzaizkigun proposamen jostariak eta bereziak, bestelako generoak sortzeraino iristen zirenak. Aurten saritzen dugun lana horietako bat da: Miel Anjel Elustondoren *Tonban ehortzirik* saila Berria egunkarian. Abuztutik irail bitartean Sabino Arana, Jon Mirande, Marga Andurain eta Uztapideri "egindako" elkarrizketetan eta XIX. mendeko emakume bertsolariei buruzko kroniketan kazetaritza eta literatura uztartzen ditu, euskarazko kazetaritzan parekorik ez duena. Dokumentazio lan itzela atzean duela, fikzioaren eta kazetaritzaren arteko mugak hausten ditu Elustondok sail honetan. Aspaldi hil ziren horiek hurbil sentitzen ditugu, egiatik iristen zaizkigu. Testu sorta honetan, beste askotan egin duen bezala, kazetari-sentsibilitate berezia agertzen du, ezaugarri pertsonalak dituen marka, kalitatezkoa zalantzarik gabe.

Saria: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra.

Komunikazio saria 2022: enpresabidea.eus

enpresabide.eus atari digitala 2022ko apirilean jaiotako euskarazko proiektu komunikatiboa Nico Cuenca ekonomialariak zuzentzen du eta Pilar Kaltzada kazetaria da sustatzaile nagusietako bat. Informazio ekonomiko eta enpresarial espezializatua eskaintzen du, euskaraz eta gure lurraldeari egokituta. Begibistakoa da enpresa eta ekonomiaren munduan hutsune handia dagoela euskaraz eta proiektu honen ekarpena arlo horretan azpimarratzekoa da. Aktualitateko informazioa eta gai jakinei buruzko eduki landuak interpretazio eta iritziarekin uztartzen ditu atari digital berri honek. Era berean nabarmentzekoa da iritzi emileen aniztasuna eta emakumeen presentzia, oraindik ere hain maskulinizatua den mundu horretan.

Saria: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra.

Era berean epaimahaiak ohorezko bi mugarri eskaini die **Elixabete Garmendiari** eta **Patxi Baztarrikari**, jarraian azaltzen diren merituengatik:

Ohorezko Aipamena: Elixabete Garmendia

Elixabete Garmendia hautatu dugu bere kazetari ibilbidea oparoa izan delako. 1970eko hamarkadan hasi zen lanean eta prentsan ari zen emakume kazetari bakarretakoa izan zen denbora luzez. Ormaiztegin 1953an jaioa eta Nafarroako unibertsitatean ikasi zuen ofizioa. Zeruko Argiaren zuzendari gisa ezagutu genuen eta astekaria elizaren eskuetatik atera zuen Pilar Iparragirrekin batera, aldizkari zorrotz, moderno eta irekia plazaratuz asterik aste.

EITBn ere aritu zen hainbat emankizunetan, baina bereziki oroimen guztietan geratu den *Bertatik Bertara* izeneko hartan. Euskadi Irratiko kultur saioretan entzun dugu haren ahotsa. Partaidetza ugari egin ditu, besteak beste, bere zutabeak Berriako Iritzia sailean irakur ditzakegu. Kazetaritzako alor gehienak landu ditu Elixabete Garmendiak, bere kemena, izpiritu zabaltasuna eta eskuzabaltasuna eskainiz, batzuentzat halaber eredu bilakatuz. Kazetari ibilbide oso bat saritu da gaurkoan.

Ohorezko aipamena: Patxi Baztarrika



Ataunen sortua 1958. urtean, ondo gaztetxo zela lotu zitzaion euskarazko kazetaritzari. 12 urte besterik ez zuela *Zeruko Argian* idazten hasi zen Ataungo berriemaile gisa, hain ondo idazten zuen, aldizkariak on Joxe Migel Barandiarani buruzko zenbaki berezia prestatu zuenean, on Joxe Migeli egindako elkarrizketa Baztarrikaren esku utzi baitzuen, baita omenaldi ekitaldiei buruzko kronika osoa ere. Baina Patxi Baztarrikak ez du kazetaritza izan ogibide, Andoaingo Udaleko euskara teknikari eta arduradun izan baita nagusiki 1981az gero eta bide luzea egin du politikagintzan ere, Hizkuntza Politikarako sailburuorde izanik bi txandatan, besteak beste.

Andoaingo Udaleko euskara teknikari gisa *Rikardo Arregi Kazetaritza Sari* hauen sorrera landu, bideratu eta hauspotu zuen eta berari zor zaio, zalantza izpirik gabe, sariari behar beste eduki eta irismen eman izana, bere bilakaeran eta biziberritzean, profesionalki zegokionetik askoz haratagoko arduraz jardun baitzuen idazkari gisa, orain bi urte erretiroa hartu zuen arte.

Sariei buruz esatekoak amaitzeko, esker ona azaldu nahi die epaimahaiak aurtengo RAKSera proposamenak bidali dituzten kazetari, komunikatzaile eta herritarrei. Esker ona proposamenak aurkezteagatik. Asko izan dira epaimahaiak aztergai izan dituenak: genero eta euskarri ezberdinetakoak, erreportaje bakanak zein sortak, lan solteak nahiz askotariko biltegi eta sekzioak, egile bakarrenak zein taldean egindakoak... Bihoakie denei epaimahaiaren esker ona, eta baita ere beren lanaren balioaren aitormena, euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren munduan ugariak baitira kalitate, bikaintasun, berrikuntza eta eredugarritasun irizpideak betetzen dituzten lanak.

Bukatzeko, epaimahai honek informazio askatasunaren aldeko aldarrikapena ere publiko nahi du egin aurtengo edizio honetan, Pablo Gonzalez kazetaria nozitzen ari den egoera dela-eta.

Informazio askatasunaren aldarrikapena: *Pablo Gonzalez*

Ez dira garai hoberenak adierazpen askatasunarentzat. Munduan zehar kazetariak isilduak dira, epaituak edo epairik gabe kartzelatuak. Aurten ere hainbat kazetarik bizia galdu dute informatzeko eskubidearen alde lanean ari zirenean.

Kazetariak halatan arriskuak hartzen dituzte. Egiaren eta post-egiaren arteko borroka betean gaude. Askotan errazagoa da *fake* berriak hedatzea, errealitatea bere gordinean azaltzea baino.

Polonian preso da Pablo Gonzalez kazetaria, Errusiaren alde espioitzan aritzea leporatzen zaiolarik. Hamar urteko zigorra eman diezaiokete. Varsoviatik ari zen eta bere erreportajeek Ukrainako gerra zuten nagusiki aipagai.

Gonzalezen kasuan, hurbiltasunak elkartasuna sustatzen du. Baina ez du mugatzen. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariketako epaimahaiak adierazpen askatasunaren aldeko aldarria egin nahi du, mundu mailan, bai eta Euskal Herrian bertan ere.

Azken Erabaki hau epaimahaikide guztiok sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hogeita biko azaroaren hogeita hamarrean.

Mahaiburua:
Alexander Huitzi Alfonso



Mahaikideak:

Itxaro Borda Xarriton

Aingeru Epaltza Ruiz de Alda

Miren Gabantxo Uriagereka

Pantxika Maitia

Ion Muñoa Errasti

Jon Sarasua Maritxalar

Idazkaria:

Arantza Aguado Perugorria